



Julene Azpeitia
lehiaketa
2020

Julene Azpeitia lehiaketa



2020

Argitaratzailea: _____



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Laguntzaileak: _____



■
**Bizkaiko Foru
Aldundia**
Kultura Saila

■
*Argitalpen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren
Kultura Sailaren laguntza jaso du*



KULTURA SAILA



JULENE AZPEITIA (1888-1980) Zumaian jaio eta Bilbon zendu zen 92 urte zituela. Maistra titulua lortu ondoren, Aizarnazabalen hasi zen eskolak ematen eta, hemendik, Bizkaiko ikastoletara pasatu zen. Irakaskuntza izan zuen lanbiderik gogokoena, “milla bider jaioko banintzake ere, maistra izango nintzake” aipatu zuen behin baino gehiagotan, izan ere, beren bizitzako ardatz nagusiak *umeak* eta *euskara* izan ziren. 1916. urtean Enrike Eskauriatzarekin ezkondu zen. Senarrarekin batera Mexikora joan zen eta, han, 1918. urtean, euskaraz idazteari ekin zion.

Itsasoz haraindi lau urte eman ondoren, Euskal Herrira itzuli zen bertako ikastoletan lanean jarduteko. Abadiñoko Traña eta Mendiolako auzo eskoletan jardun zuen 1922tik 1936a arte. Gerra ostean hainbat zigor jasan behar izan zituen: “amaika urte ikastola gabe, sei urte Burgosko herri txiki batean...Orain Durangon bizi naiz nire senarrarekin”. Hau 1961. urtean idatzi zuen Julenek. Sasoi hartan Durangoko Juan de Itziarren bizi zen, irakaskuntza utzirik eta idazteari lotuta.

Esanguratsua da 1962an Euskaltzaindiko Sariketara aurkeztu zuen ipuinaren izenburua: *Euzkera jasotzea erabaki dogu*. Izan ere, Julenek, ipuin, eskola eta irratsaioen bidez euskara hedatzea zuen helburu. Arrate Irratiak emititzen zuen *Oiztik Anbotora* irratsaioan hartu zuen parte, besteak beste, Juan Gallastegi apaizarekin eta Eskarne Aromarekin. Irratian, maistra-lanetan edota idazterako orduan, beti, kezka nagusi bat zebilzion buruan: “nola jardun euskara iraunarazteko eta berau umeengan biziberitzeko?”

1975. urtean, Gabriel Arestik proposatuta, Euskaltzaindiak euskaltzain ohorezko izendatu zuen Julene Azpeitia. Bera izan zen lehen emakume euskaltzain ohorezkoa, eta gero, Tene Mujika debarra eta Madeleine Jauregiberri zuberotarra gehitu zitzaizkion..

Julene Azpeitiak argitaratu zituen liburuak: *Osasuna, Merketza ta Yanaritzaz* (1920); *Irakurri, Matte* (1932); *Amandriaren Altzoan* (1961) eta *Zuentzat* (1974).

Izenburua: Julene Azpeitia Lehiaketa. 2019. urtea

Azala eta barruko marrazkiak: Imanol Larrinaga

Argazkiak: Zaloa Fuertes

Argitaratzailea: Durangoko Udala

Maketazio eta fotomekanika: Gertu. Oñati

Inprimategia: Gertu. Oñati

Lege Gordailua: SS-1424-2014

2020ko azaroa

HITZAURREA..... 9

Juan Julian Rios Santiago

Durangoko Alkateordea eta Herrigintza Batzordeko Presidentea

IPUINAK

GURE BELDURRAK 11

Uxue Santidrian Larrañaga

ROXYREN EGUNEROKOA..... 17

Paule Barrutia Narbaiza

ZIRKOA 21

Maria Fernandez Saez

KARIMA..... 29

Ines Azurmendi Burgada

BIZITZA BIDEGABEKERIA HUTSA DA 41

Ane Gonzalez Castillo

AZKEN AFARIA 51

Iñigo Legorburu Arregi

OLERKIAK

TXANTXANGORRIA..... 63
Eider Miguel Sanchez

BARRUAN GERATU BEHAR 67
Danel Barrutia Narbaiza

IZAR BERRI BAT 71
Nerea Etxaburu Mintegi

ZUTAZ OROITZEN NAIZ 77
Amaiur Zuazua Abendibar

LEHENTASUNEZ..... 83
Iñigo Legorburu Arregi

BERTSO PAPERAK

ETXEZ ETXE 89
Iñigo Legorburu Arregi

hitzaurrea

Julene Azpeitiak hezkuntza eta euskara izan zituen bere bizitzaren ardatz nagusiak. Gauza guztien gaineratik, helburu bat lehenesten zuen: “haurrak maitasunean heztea”, eta maitasun horrek euskara ere hartzen zuen bere baitan, umeez euskara maitatzea nahi baitzuen Julenek.

Pasio eta debozio honen emaitza da Durangoko Udalak antolatzen duen Julene Azpeitia literatura lehiaketa. Urteak joan urteak etorri, haur eta gazte askok hartzen dute parte ipuinak, olerkiak eta bertsoak sortzen.

Hitzaurre hau baliatu nahi dut parte-hartzaile guztien lanak eskertzeko, ilusioz eta esfortzu handia eginez jardun dutelako. Eta esker ona helarazi nahi diet, baita ere, Durangoko ikastetxeetako komunitateari, euren ahaleginei esker Julene Azpeitia lehiaketa erreferente bilakatu delako gure herriko haur eta gazte sortzaileentzat. Guztiok zarete ezinbesteko, haurrak, gazteak eta irakasleak. Zinez, eskerrik asko guztioi.

Aurtengo urtea nekez ahaztuko dugu. Elkarren arteko distantzia zaindu behar izateak gogor astindu gaitu, baina gure gazteen ipuin, olerki eta bertsoei esker distantzia hori murriztea lortu dugu, irudimenak eta sorkuntzak elkarrengana hurbilarazi eta batu egin gaituelako.

Irakurle, murgil zaitez testu eder hauetan barna eta goza ezazu.

Eskerrik asko eta besarkada bat.

Juan Julian Rios Santiago

Durangoko Alkateordea eta Herrigintza Batzordeko Presidentea

julene azpeitia
lehia keta
2 0 2 0



Ipuinak




Uxue

Santidrian Larrañaga

Irabazlea 11 -12 urte bitartekoen sailean

San Antonio Ikastetxea

Gure beldurrak



Amets naiz, 12 urteko mutila, edo hori behintzat esaten didate gurasoek, irakasleek eta lagunek.

Lehen hezkuntzako 6. mailan nago, baina zailtasun asko ditut ikasteko orduan, eta normala iruditzen zait, zeren eta ni arraro samar sentitzen bainaiz nire buruarekin, ez naiz gustura sentitzen; egia esaten badut, neska izatea gustatuko litzaidake, baina inork ez dit ulertzen; arraroa da, ezta?

Orain nire gelako leihotik parkerantz begira nago, neska talde bat ikusten dut soka saltoan jolasten eta ez dakizue ze nolako gogoia daukadan haien moduan jolasteko. Agian zuen baitan galdetuko zenuten: «...eta zergatik ez zara jaisten haiekin jolastera?» Hain erraza izango balitz...

Bost urte nituela, erosketak egitera joan nintzen nire familiarekin, eta niri soineko bat gustatu zitzaidan: soinekoa hartu, jantzi eta nire aitari erakutsi nion. Bere erantzuna oraindik gogoan daukat, «kendu ezazu txorakeria hori oraintxe bertan, hori neskentzat da eta!»

Hori gertatu zenetik ez naiz ausartu nire gurasoei gai horretaz ezer gehiagorik esaten.

Autobuseko geltokian itxaroten nago eskolara iristeko, ez daukat lagunik eta beti jesartzen naiz atzeko jarlekuetan. Nik igartzen dut ez didala inork ulertzen, ez nire gurasoek, ez lagunek, ez irakasleek, ... inork ere ez; bakarrik sentitzen naiz! Eskolara heltzean, egun hori besteak bezalaxe izango zela pentsatu nuen, baina ez... Korridoretik, nire armairuraino heldu nintzen eta bat-batean norbaitek sorbaldatik bultzatu ninduen eta lurrera erori nintzen.

Haien aurpegiak ikusi nahi nituen zuzendariari esateko, baina maskarak zeramatzaten eta ez nekien nortzuk ziren. Baina hor ez zen amaitu erasoaldia, ostikoka hasi ziren eta papertxo batzuk zintzilikatu zituzten eskola osotik zehar, honela ziotenak: «Amets, babalore hutsa zara, jendeak zu ikustean ihes egiten du!»

Begien malkoei eutsiz, altxatu egin nintzen eta liburuak armairuan gorde nituen, ez neukan indarririk, beste guztien azpitik nengoela sentitzen nuen, ez nuela ezertarako balio.

Klasera sartu nintzen, ez neukan ezer ikasteko gogorik, handik ihes egitea besterik ez nuen nahi baina eguerdira arte itxaron beharko nuen...

Jolastordua heldu zen eta, egia esanda, gorroto dut momentu hori, arraroa da bai, baina lagunik ez duen eta jolastokian beti bakarrik egoten den pertsona batentzat, besteentzat atseginak izan daitezkeen gauzak, oso desatsegin bihur daitezke.

Txintxaunetako kulunkan eseri eta malkoei eutsi ezinik negarrez hasi nintzen. Kontua da, ez nuela denbora askorik izan negar egiteko zeren eta bat-batean, maskaradunek borobil bat egin eta ni borobilaren erdi-erdian aurkitu bainintzen. Galtzak jaisteko esaten zidaten, eta nik oihuka ezetz eta ezetz, baina atzetik norbaitek heldu zidan eta galtzak jaitzi zizkidan... Ezin nion utzi negar egiteari, eta handik korrika alde egin nuen...

Azken klasea geratzen zen etxera joateko eta oso luze egin zitzaidan, erlojuari begira nengoen denbora guztian, baina oso astiro mugitzen ziren erlojuaren orratzak. Azkenean txirrina entzun genuen eta abiada batean hartu nuen etxerako bidea.

Etxera sartzean, eguneko gertakariak bultzatuta nire logelara igo nintzen negar eta oihu egitera, horixe baitzen apur bat lasaitzen ninduen bakarra. Denbora asko eman nuen negarrez eta oihuka eta bat-batean zarata batzuk entzuten nituen nire logelako atearen beste aldean. Horra hurbildu eta arraroa iruditu zitzaidan nire ama bertan ikustea, sekula ez didalako ulertu. Ea ondo nengoen galdetu zidan, eta, bat-batean, sentimenduak eta emozioak arrapalada batean eta batera kontrolik gabe nire barnetik ateratzen hasi ziren. Ez dakit zergatik baina askoz ere hobeto sentitu nintzen nire amari dena kontatzean. Lasaitu nintzenean, ama negarrez ikusi nuen eta barkamena eskatu zidan, oso txarto sentiarazten zutela nire sentimenduak



zeintzuk ziren arinago ez hautemateak eta zenbat sufritzen ari nintzela ez konturatzeak. Geroxeago, espero ez nuen gauza bat esan zidan; aitarekin hitz egingo zuela eta denok batera egingo geniola aurre egoera horri.

Ni ez nengoen oso ziur eta beldur pixkat ere sentitu nuen, ez bainekien zelan hartuko zuen aitak nik neska izan nahi nuela, gogoan neukan eta, oraindik, soinekoaren episodio hura.

Arratsaldean, eskolara bueltatu nintzen amarekin. Musu bat eman nion eta bera gertatutakoa salatzerazuzendariarengana joango zela esan zidan. Alde batetik, ondo sentiarazten ninduen erabaki hark, baina beste aldetik beldurra sentitzen nuen, agian salatu ostean salatzaile deituko ote zidaten eta egoera okerrago bihurtuko.

Klaseak oso-oso luzeak egin zitzaizkidan eta txirrina jotzean, denok bata besteari bultzatzen irten ginen klasetik; nire gurasoak ez ziren inoiz etortzen nire bila eskolara, horregatik nire begiek ezin zuten sinetsi ikusten ari zirena... aita itxaroten neukan kanpoan, soineko bat soinean zuela! Korriketan berarengana joan nintzen eta besarkada handi-handi bat eman genion elkarri. Bere motxilatik beste soineko bat atera eta niregana luzatuz janzteko esan zidan! Ez nekien zer esan, ez zer egin, harrituta eta asaldatuta nengoen baina aldi berean, sekula ez naiz hain zoriontsua izan! Soinekoa jantzi, aitari eskua eman, burua altxatu eta harro-harro hartu genuen etxerako bidea.

Badakit zure arazoak edo egoerak kontatzea oso zaila izan daitekela eta beldurtuta edo lotsatuta sentitu ahal zarela, baina beste guztiaren gainetik, laguntza eskatzeak merezi du, horrela denok batera borrokatuko duzue norabide berean. Ekaitza oso bortitza, luzea eta gogorra izan arren, lainoen artean eguzki izpiak agertzen dira beti.

Ipuinak




Paule

Barrutia Narbaiza

Akzesita 11 - 12 urte bitartekoen artean

San Antonio Ikastetxea

Roxyren egunerokoa



Kaixo, Roxy deitzen naiz eta aspalditik Nikoleren etxean bizi naiz. Oso gustura bizi naiz etxe honetan. Lana astelehenetik ostiralera egiten dut, eta batzuetan, domeketan, Nikolek bere amamaren etxera eramaten nau. Ni Nikoleren eskolako motxila naiz, baina badira aste batzuk ez dudala etxetik irteten, eta arraroena da Nikole bera ere ez dela irteten.

Etxean geratzen da egun guztian, eskolara ere ez da joaten, eta asteburuetan ez da lagunekin geratzen.

Oso aspertuta nago. Ez dut ezer egiten. Lehen behintzat, astean zehar, lagunak ikusten nituen eskolan eta eskolarako bidean.

Gure lana ez da oso erreza. Askotan pisu itzela eroan behar dogu, beste batzuetan lurrera botatzen gaituzte edota eskegita geratzen gara aulki baten egun osoan. Orain egun guztiak berdinak dira. Nikoleren liburu batzuk nire barruan daude eta beste batzuk gelako mahai gainean.

Aspaldi kreailera bat apurru zitzaidan. Ez du min handirik egiten, baina deserosoa da. Nikoleren amari entzun nion konpontzera eramango nautela, baina ez dakit zergatik, berdin jarraitzen dot.

Faltan botatzen dut kalera irtetea, lagunak ikustea, haizea hartzea ... Nikole ere oso aspertuta dago. Batzuetan haserre ere egoten da, baina berak behintzat lagunak ikusten ditu (horretarako aparatu bat erabiltzen du). Nik ez ditut ikusten baina entzun egiten ditut.

Orain arte ez dut jakin zer gertatzen zen, baina atzo entzun nion Nikoleri esaten txinatar batek "pangolin" bat edo jan zuela eta horregatik gaudela etxean. Antza mundu guztia dago etxean sartuta.

Sekula ez nuen pentsatu hau esango nuenik: **ESKOLARA JOAN NAHI DUT!!!!**



Ipuinak



Maria

Fernandez Saez

Irabazlea 13 -14 urte bitartekoen sailean

San Antonio Ikastetxea

Zirkoa



Ni neska normal bat naiz eta nire guraso eta txakur txikiarekin, neba-arrebarik izan ez arren, oso ondo pasatzen dut. Gurasoek 40 urte dituzte eta batzuetan nirekin jolasten dira, baita nire txakur Laikarekin. Laika zuri-beltza da.

Eskola handi batean ikasten dut, Rooral izenekoa. Han lagun asko ditut: Carla, Maite, Paulina... eta nahiz eta batzuetan haserretu, gero oso arin adiskidetzen gara berriro.

Uda guztietan leku desberdinetara joaten naiz: Tarragonara, Parisera, Saloura, Londresera... Udaro leku batera joaten gara eta hotel batean pasatzen dugu udaldia. Oso berbatia naizenez, gurasoek esaten didate lagunak egiteko eta ni parkeetan eta umeak ikusten ditudan lekuetara joaten naiz lagunak egitera. Londresen eta Parisen izan ezik, han beste hizkuntza batean hitz egiten dutelako eta ni, saiatu arren, ez diet ulertzen. Baina Tarragonan, adibidez, lagun pilo bat egin nituen: Kuadrillako adiskideak leku desberdinetakoak ziren, eta hain ondo eramaten ginenez, whatsapp talde bat sortu genuen. Lehenengo egunetan hitz egiten ematen genuen denbora guztia, baina egunak aurrera joan ahala, hitz egiteari utzi genion eta kontaktua galdu genuen.

Orain arte dena oso normala da, ezta? Baina orain kontatuko dizuedana ez da hain normala: liluragarria, beldurgarria eta fantastikoa da aldi berean. Pasadan udan gertatu zen... Nire gurasoak Madrilera joatea erabaki zuten eta hau esan zidaten:

- Clara, uda honetan Madrilera joatea pentsatu dugu, zer iruditzen zaizu?-esan zidan nire amak irribarre zabal batekin.

- Bikain! Baina zer egingo dugu han Pradoko museoa ikusi? Retiroaren parkean paseo bat eman? edo zer? Bisitatzeko leku gehiago ez zait bururatzen, baina seguru gauza pila bat daudela, ez duzu uste? -esan nion nik ilusio handirekin.

- Ez, ez. Madrilera ez goaz ezer bisitatzera -erantzun zidan begirada misteriotsu batekin.

- Orduan zertara goaz? - ni galdezka.

- *Circo del Sol* ikustera goaz. Zirko polit-polita da eta jende asko joaten da, eta irtetzerakoan guztiei gomendatzen diete.

Hortaz, Madrilera joan ginen. Ni urduri joan nintzen inoiz zirko batera joan gabe nengoelako. *Circo del Sol* hain zen izugarria eta polita, ezin dudala hitzez azaldu.

Sarrerara heltzean, atean zegoen zaindaria niri begira egon zen denbora guztian. Segidan, zaindariaren laguntzaile batek, gurasoei eta niri, eserleku berezietan jesartzeko esan zigun, nahiz eta ez ziren guri zegozkigun lekua. Eszenatokitik gertu geunden, dena liluragarria zen, baina zerbait arraroa ikusten nuen han. Pailazoak atera ziren eta bat niregana hurbildu eta begiarekin keinu bat egin zidan. Gero akrobata handi bat atera eta zerbait esan zuenean niri begira zegoen. Nire amari esan nion baina ez zidan kasurik egin, eta txorakeria bat zela esan zuen. Baina denbora guztian niri begira zeuden eta hori ez zitzaidan bat ere gustatzen.

Zorionez, espektakulua amaitzeko zorian zegoen, baina bat batean pailazoak berriro irten ziren magia truku bat egingo zutela esanez. Boluntarioak eskatzen hasi ziren, eta ideia bat bururatu zitzaidan: Boluntario aurkezten banintzen, ziur aski, ni aukeratuko ninduten. Orduan, pailazoengana hurbildu, gezurren bat esan eta agian zirkoko aldageletara sartu ahal izango nintzen eta haien ingurukoak ikertu.

Halaxe gertatu zen: neu aukeratu ninduten boluntariotzat, nahiz eta jende asko zegoen eskua altxatuz eta oihukatzen. Eskenatokira heltzean esan zidaten kutxa batera pasatuko nintzela eta desagertarazi egingo nindutela. Hori esan zutenean oso urduri eta beldurtuta nengoen. Zer egingo zuten? Nola egingo zuten? Nora eramango ninduten?



IL-20

Pailazoak kutxara sartzeko eskatu zidan irribarre handi batekin. Ni urduri sartu nintzen eta ez nuela nire burua boluntario eskaini behar pentsatu nuen. Sartzarakoan guztia ilun zegoen eta bat-batean zapaltzen nuen egurra zabaldu eta txirrista batera sartu nintzen. Nik begiak itxi nituen eta koltxoneta batera jausi nintzen. Ikuskizunean zeuden guztiak niri begira geratu ziren denbora luze batez. Ni altxatu eta galdetu nuen:

- Non nago? Antzestu duzuen bitartean zergatik egon zarete niri begira? Zerbait berezia ikusten duzue nigan? Zergatik zarete hain bereziak? -esan nuen beldur handiz.

- Trankil egon neskato -esan zidan batek.

- Magia truku bat besterik ez da -beste batek lasaitu nahian.

- Zirkoan lan egin nahi duzu? -akrobatak.

- Ez, ez eta ez, ez dut zuekin zerikusirik izan nahi, oso arraroak zarete. Nire eserlekura bueltatu nahi dut -esan nien dardarka.

- Baina sirenatxo bat moduan igeri egin ahal duzu eta dirua lortu -atzetik, beste batek.


Zirkoko jabea zirudiena ni nengoen tokira hurbiltzen ari zen bitartean, gainerako guztiak bidea zabaldu zioten. Nik berriro ere esan nien:

- Nire eserlekura bueltatu nahi dut, nire gurasoekin, ez dut sirenatxo edo beste ezer izan nahi -esan nien oso serio.

Nagusia altua zen eta bibote dotore bat zeukan, txano luze bat zeraman eta nik hori esatean aurpegia aldatu zitzaion.

- Ondo da, baina kontuan hartu gu saiatu egin garela, ados? -keinu batekin.

Dantzari batek berarekin joateko eskatu zidan, eta txirrista batetik jausi nintzen. Ondoan eskailera batzuk zeuden eta handik igotzeko eskatu zidan, hau da, berriro kutxaren tranpilaren beheko aldetik igotzeko. Igotzean kutxatik irten eta jende guztia liluratuta ikusi nuen. Pailazoak, irribarrez, golosina bat eskaini zidan, baina nik, bi aldiz pentsatu baino lehen, ezetz esan nion eta nire gurasoengana korrika joan nintzen eta gertatu zitzaidan guztia kontatu nien. Zirkokoek sirenatxo txotxolo bat besterik ez izatea nahi zuten. Nire familiak Madrilen denbora gehiago pasatzeko asmoa zuen, baina gertatu zena ikusita, berriro etxera bueltatzea eta dena ahaztea erabaki genuen.





Ipuinak




Ines

Azurmendi Burgada

Irabazlea 15 eta 16 urte bitartekoen artean

San Antonio Ikastetxea

Karima



Sirian, 2011ko martxoaren 15ean.

Karima deitzen naiz, Alepon bizi naiz eta 15 urte nituen nire bizitza normalak 180 graduko buelta eman zuenean. Nire bizitza errutina bat zen; 8:30ean jaiki, eskolara joateko prestatu, amaren, aitaren eta nebaren, musua jaso eta eskolara. Eskolan nire lagun minak ikusten nituen eta nahiz eta eskola asko ez gustatu, ondo pasatzen genuen elkarrekin. 16:30ean eskolatik irten eta berriro etxera. Meriendatu, etxeko lanak egin eta bukatzean nire telesailik gogokoena ikusten nuen. Gero dutxatu, afaldu eta ohera. Hori zen guztia. Egun batean, jantokian bazkaltzen ari ginen eta zarata handi bat entzun genuen. Sute bat izango bazen bezala, protokoloa jarraitu genuen eta jarraian etxera bidali gintuzten. Zer gertatu zen? Zer izan zen zarata hori? Zergatik gertatu zen? Inork ez zekien ezer.

Egia esan, ni ez nintzen nire lagunen modukoa. Ez nintzen beti mutilen edo nesken atzetik ibiltzen, eta haiek baino helduagoa nintzen. Ordu batzuk pasatu zirenean, banekien zer gertatzen ari zen, zer izan zen zarata hura. Bonba bat jaurti zuten gure eskolara baina ez nekien zergatik. Ez nuen galdetu, ez zen momentu ona. Egun batzuk pasatu ziren eta hainbat bonba jaurti zituzten berriro ere, beraz, amak pare bat gauza garrantzitsu hartzeko agindu zigun eta etxetik ihes egin genuen. Nik neure libururik gogokoena, familiako argazki bat eta aitak oparitutako egurrezko kutxa bat hartu nuen. Nire nebak lau liburu hartu zituen; egun osoa egoten zen irakurtzen, izugarri

gustatzen zitzaion. Amak ordea, bera eta aitaren argazki bat, ur botila batzuk, janari apur bat eta manta batzuk hartu zituen. Gauza bat falta zen:


- Non dago aita?-galdetu nuen etxetik irtetzen gindoazen bitartean.
- Aita ez da gurekin etorriko -esan zuen amak begiak malkoz beteta.

Ez, aita ez zen gurekin etorriko, ez orain, ez inoiz....

2012ko ekainaren 6an hasi genuen “bidaia”. Amaren lagun batek kotxez eramán gintuen Siriako kanpoalderaino. Hortik aurrera, oinez jarraitu genuen. Hilabeteak eman genituen oinez eta izugarritzko beroa egiten zuen. Leku on bat ikusten genuenean, mantak hartu eta lo egiten genuen. Ez geunden bakarrik, beste hainbat familia zeuden gure helburu berarekin, infernutik ihes egitea. Baina ni ez nintzen ondo sentitzen, lagunak ez zeuden nirekin ezta aita ere ez. Izugarri botatzen nuen faltan aita, bere ahotsa, besarkadak, barrea, bere usaina, bera. Egoera oso txarra zen, jende asko nagusia zen eta ezin zuen gehiago. Janaria, ura eta dirua eskasa zen, eta ume txikiek larritasunez behar zuten janaria eta ura.

2012ko azaroan, Turkiako kostaldera heldu ginen. Han errefuxiatuen kanpamentu bat zegoen eta bertan pasatu genituen aste batzuk. Ur apur bat lortu genuen baina egoera larria izaten jarraitzen zuen. Aste batzuk pasata, txalupa ertain batean sartu ginen, gu hirurok, eta beste lau familia. Oso estututa geunden eserita eta hotz handia egiten zuen. Beldurra sentitzen nuen. Ez genekien zer gertatuko zen, zer espero behar genuen beste aldean, egoera ona ala txarra zen...

Ez nekien zenbat denbora pasa zen, orduak, egunak, asteak...bidaia luzeegia egin zitzaidan, baina azkenean Greziara heldu ginen. Bertan zegoen beste errefuxiatu kanpamentu baten geratu ginen. Oso ondo moldatzen ziren, ikasteko gelak zeuden, txintxaunak, komunak, janaria, ura, eta kalitate hoberenetakoa izan ez arren, oheak zeuden. Beste bi pertsonekin egiten genuen lo txabola berean eta oso ondo gogoratzen ditut bakoitzaren izenak. Amina eta bere semea Alim, ama, Fadi eta ni. Gure artean oso ondo konpontzen ginen. Ama eta Amina lagun minak egin ziren eta horrek oso pozik jartzen ninduen, zeren eta niretzat garrantzitsuena ama pozik egotea zen. Bertan zegoen eskola batean matrikulatu ginen eta jarraian hasi genituen klaseak.



Alim eta biok klase berera gindoazen, adin berekoak ginen eta. Lagun minak ginen, gehiagorik ez, lagun minak bakarrik. Gehien gustatzen zitzaidan irakasgaia ingelesa zen, eta hizkuntza honi buruz piperrik jakin ez arren, oso ondo ematen zitzaidan. Gutxien gustatzen zitzaidana, berriz, matematika. Ez dut ulertzen, zergatik jakin behar dut nik 105en erro karratua zein den? Definitiboki, matematikak, tontakeria bat dira, ez dute ezertarako balio. Bueno bai, burua endredatzeko eta etxeko lanak egiten ari zaren bitartean, estresatzeko.

Eskolako irakasleak, oso ondo portatzen ziren gurekin, txistek kontatzen zizkiguten eta beti irribarre batekin egoten ziren.

Klaseak bukatuta, nire txabolara nindoan norbait nire izena oihukatzen entzun nuenean.

- Karima, Karima!

Atzerantz begiratu nuen eta ezusteko itzela hartu nuen.

- Nadiaaa? Benetan zu zara? Ezin dut sinetsi! Zer egiten duzu hemen? eta noiz heldu zara? -hainbat galdera egin nahi nizkion; ezin nuen sinetsi nire lagunik onena nire leku berean egotea.

- Orain dela 2-3 aste heldu nintzen, baina nire aita eta ahizparekin bakarrik nago -esan zuen tristura aurpegiarekin.

- Zera... lasai egon, nire aita ere ez dago gurekin -ez nion galdetuko bere amari zer pasatu zitzaion kontatzeko, banekielako erantzuna. Bere ama oso emakume indartsua zen eta oso harreman estua zuten haien artean. Nadia ere oso indartsua zen, asko estimatzen nuen, baina ama baten heriotza, ez da hain erraz gainditzen.

Hurrengo egunak oso onak izan ziren. Lagun berriak egin nituen, nire ingeles maila igotzen zihoan, ama ere lan egiten hasi zen eskolako jantokian eta arratsaldero lagunekin irakasleek prestatutako jokoetara jokatzen genuen. Gauak berriz, apur bat gogorragoak ziren, hotza egiten zuen eta mantak eduki arren, ez zen nahikoa. Gauero aita gogoratzen nuen, eta berarekin amets egiten nuen. Gure etxe ondoan zegoen parke batean geunden, banku batean eserita eta gaztazko ogitarteko bat jaten. Bere txistek munduko hoberenak ziren. Beti umoretsu zegoen eta lanean egun txar bat izan arren, etxean beti guri barre eragiten saiatzen zen. Munduan ezagutzen dudak

pertsonarik onena zen. Gauero ematen nion musu bat etxetik hartu nuen argazkiari, eta egurrezko kutxan sartzen nuen gero.

Hurrengo egunean, txabolarantz bueltan nentorrela, mediku batzuk zeuden barruan eta oso urduri jarri nintzen: ez nekien zer pasatzen ari zen. Aminak, gurekin bizi zen emakumea, eskutik hartu eta beste leku batera eramanez ninduen. Orduan kontatu zidan zer gertatu zen. Ama gaixorik zegoen eta lekuren batera eramanez behar zuten egoera larriagotu ez zedin. Kanpamentu honen egoera, aurrekoa baino askoz hobea zen, baina ez zen luxuzko kanping bat eta Aminaren aurpegia ikusita, hura ez zen gaixotasun simple bat. Ez nuen esperantza handirik, ez nik, ez inork.

Aste bat egon nintzen nire 12 urteko neba zaintzen, gure amaren berririk ez geneukan eta. Egun horretan eskolara heltzean esan zidaten, espero nuen baina inola ere jakin nahi ez nuen berria. Amak ez zuen gaixotasun madarikatu hori gainditu, beraz, zer gertatuko zen Fadi eta nirekin? Hainbat galdera nituen nire buruan baina inork ezin zituen erantzun.

Txabolara sartzean ama eta aitaren argazki bat ikusi nuen nire ohe gainean. Amak etxetik hartutako argazkia zen, eta orain nik gordeko nuen. Ideia bat bururatu zitzaidan. Ez nekien zer gertatuko zen nirekin ezta Fadirekin ere, beraz etxetik ekarritako gauza guztiak lurperatzea erabaki genuen. Parke ondoan lurperatu eta promesa bat egin genuen, nagusitan, non egongo ginen kontuan izan barik, hona bueltatuko ginen eta lurpetik aterako genituen egun horretan lurperatutako gauzak.

Begiak irekitzean, dena zuri ikusi nuen, horma zuriak, ohe eta manta zuriak, pertsiana zuriak... usain arraro bat ere bazegoen, ospitale usaina. Segituan jaiki nintzen ohetik:

- Non nago? Zer da hau? Zergatik ditut hainbat kable nire inguruan? Zer gertatu da?

- Greziako ospitale baten zaude gaztetxo -esan zuen atetik sartu zen mediku batek- buruko isuri bat jasan duzu eta pare bat aste egon beharko zara hemen.

- Barkatu baina ez dizut ondo ulertzen eta izugarritzko buruko mina daukat -esan nuen buruko min madarikatua jasan ezinik.



- Buruko isuri baten ondorioetako batzuk dira, lasai egon.

Emakume batek bazkaria ekarri zidan eta ez zegoen batere ona, baina neukan bakarra zen. Bat-batean gizon eta emakume bat sartu ziren gelara, oso dotore zeuden jantzita eta karpeta bat zeukaten eskuetan. Beste emakume bat sartu zen, hau ere oso dotore jantzita, eta nire ondoan eseri zen.

- Kaixo Karima. Kate naiz eta hauek John eta Betty dira. Badakizu, buruko izuri bat jasan duzula eta ospitalean geratu beharko zara. Zure gurasoak, zoritxarrez, zera, hilda daude eta orain ezta zu ezta Fadi...

- Fadi, Fadi! Non dago? Ondo al dago? Eta norekin? -galdetu nuen urduri.

- Bai lasai, Fadi ondo dago, errefuxiatuen kanpamenduan bere lagunekin, ez arduratu -esan zuen emakumeak ni lasaitzeko asmoz. Nioen bezala, zu eta Fadi guraso gabe geratu zarete eta ume guztiek bezala, guraso batzuen maitasuna behar duzue. Zer irudituko zitzaizun Betty eta John zure gurasoak balirateke?

Ez nekien zer esan, guztiz harrituta geratu nintzen eta ezin nuen Fadi bakarrik utzi.

- Eta zer gertatuko da Fadirekin, bakarrik geratuko da?

- Ez, Fadi beste familia batekin dago eta oso pozik gainera -esan zuen oso konbentziturata.

Ez neukan aukerarik, onartzen ez banuen, bakarrik geratuko nintzen, beraz...

Bai, bale, onartzen dut.

2014ko irailaren 3a.

Unibertsitatea hastera zihoan eta nire kasua apur bat arraroa zen. Baina Amsterdameko unibertsitate batean onartu ninduten, beraz Amsterdamera bizitzera joan nintzen. Gurasoek dirua eman zidaten pisu bat alokatzeko eta bertan hartu nuen ostatu. Gurasoen eta nire arteko harremana oso ona zen, oso ondo portatzen ziren nirekin eta oso ondo tratatzen ninduten. Unibertsitatean ikerketa kazetaritza ikasi nuen eta ikasketak amaitzerakoan,

jarraian topatu nuen lana Amsterdameko egunkariak idazten zituen ofizina batean. Egunkari horretan artikuluak idazten nituen, espezifikoki, jendeak bidaltzen zizkigun artikuluak. Beraz, jendeak bere bizitzako pasarteren bat bidaltzen zuen eta interesgarrienak idazten nituen.

Egun batean nire nebaz pentsatzen egon nintzen eta bera topatzeko ideia bat bururatu zitzaidan. Nire esperientzia idatzi nuen egunkariko artikuluan, eta horrela berak irakurtzen bazuen jakingo luke Amsterdamen bizi nintzela.

Hiru aste pasatu ziren artikulua argitaratu nuenetik eta ez nuen deirik jaso baina bat-batean, nire nagusiak, dei bat jaso nuela esan zidan Fadiren partez. Bera zen, Fadi, nire neba, nire neba galdua. Segituan jarri ginen kontaktuan eta orduak pasatu genituen telefonoz hitz egiten. Kanadan bizi zen eta medikua izateko ikasten ari zen unibertsitatean. Ea zergatik medikuntza aukeratu zuen galdetu nionean, hunkitu egin nintzen. Azaldu zidan, amari gertatu zitzaiona beste inori ez pasatzeko egiten zuela, jendea laguntzeko. Gogoratu nion, txikitan promesa bat egin genuela eta lurperatutako gauzak lurpetik atera beharko genituela, beraz, elkarrekin geratu behar ginen errefuxiatuen kanpamendu horretara joateko.

Hiru aste pasatu ziren eta heldu zen eguna. Elkar ikusi genuen, kanpamenduaren atean, izugarrizko besarkada eman nion: nire bizitzako besarkadarik luzeena izan zen, maitasunez betea, sentimenduz betea. Barrura sartzean, ezin genuen sinetsi ikusi genuena. Alim zegoen sarreran, txikitan gure txabolan bizi zen umea. Berak ere ezusteko sorpresa hartu zuen, eta zertara joan ginen kontatu genion. Gauzak lurperatu genituen lekura joan ginen hirurok batera eta hor zeuden, liburuak, argazkiak eta egurrezko kutxa. Oso momentu polita izan zen. Txikitako gauzak gogoratu genituen: familia, edo familiarik geratzen zitzaiguna.

Gauzak egunean jarri genituen hiruron artean. Alim, orain, kanpamenduko nagusia zen, bera txikitan egon zen kanpamenduaren nagusia. Ezin izan nituen malkoak jasan. Neska txiki bat ikusi nuen beso barik eta bere begiek momentu hartan sentitzen zuen beldurra eta tristura adierazten zuten. Dena berdin-berdin zegoen, ez dakit zenbat txabola eta kanping denda, eskola txiki bat, parke eta milaka aurpegi. Aurpegi desesperatuak, ezjakintasunagatik beldurtuak, baina inportanteena, esperantzaz beteak. Ume horietako bakoitzak amets bat zuen, ziur nago, nik



IL-20

ere neureak baintuen. Haietako batzuk amets horiek beteko dituzte, ez dakit orain gertatuko den edo 15 urtera edo 30 urte barru. Baina badaude beste batzuk: kanpamendu horietan geratu beharko direnak betirako, edo bizirik iraun arte, eta bere bizitza jokoan jarri beharko dutenak, bizitzan zeozer lortzeko. Uda horretan boluntario aurkeztu nintzen kanpamenduan lan egiteko eta ingeleseko klaseak ematen nituen. Bai, txikitan ingelesa ikasi nuen lekuan orain irakaslea naiz, harritzekoa, ezta? Uda horren ondoren ondorio bat atera nuen:

Munduko pertsona guztien bizitza ez da berdina, ez, baina Siriatik edo beste edozein herrialdetik datozen errefuxiatuen bizitza oso desberdina da. Kanping denda batzuetan egiten dute lo, janari, ur eta diru eskasa, ezin dira kanpamendutik irten, eta ez dute inongo eskubiderik. Mundu hau injustiziaz betetako mundua da, bai, baina lehen bizitza on bat zuten familiei, gerratik, heriotzatik, infernutik ihes egiten duten pertsonen kanpamendu pobre batean sartzea, eta etxe edo leku seguru bat ez ematea, hori bai dela injustizia.

Ipuinak



Ane

Gonzalez Castillo

Irabazlea 17 - 18 urte bitartekoen artean

Ibaizabal Ikastola

Bizitza bidegabekeria hutsa da



Herriko pregoilariak baieztatzen du uztailaren 18an gaudela gaur, “La sangre del Calvo Sotelo, mártir de España, ha librado de sus enemigos a la patria”, “Ya no es delito gritar ¡Viva España!”. Beldurrez airean nago atzotik. Kotxeko irratian entzun genuen senarra eta biok gobernuko estatukolpearen berri, hiriko bidean ginela. Gaur bertan heldu zaigu gutun ziurtatua etxera, Inazio errepublikaren aldeko batailoian erreklutatzeke. Zorionez, gizajoa tronbosiak jota dago aspaldi eta medikuaren agiriak libratuko duelakoan gaude. Nolanahi ere, Inazioren aita munta handiko letradua da; beharbada hark salba gaitzake.

Aurrez aurre azaldu zaigu gerra zibila. Burura datorkidan bakarra ingurukoen babesa da. Astelehenero ikusten dut Vivianne Gernikako azokan, baina gaur zapatua izanik tabako-dendako Begoñari eskatu diot Elorriora hurbil nazan bere autoan, nire lagun mina ondo dagoela ziurtatzeko.

Betidanik izan da nire laguna Vivianne. Txikia nintzela aita Ameriketara joan zen abeltzaintzan eta ama utzi zuen Durangon bakarrik. Geroztik ez dugu aitaren berririk izan. Aspaldi asimilatu genuen bidai hain luzeetan ontziak ez direla beti helmugara iristen. Ordutik, Vivianen etxean beste alaba bat bezala zaindu eta maitatu naute ama lanean zebilen bitartean.

Abadiño atzean utzi dugu jada. Begoñaren leihotik ikus daiteke Anboto Atxondo parean, polita, beti bezala, baina gaurkoan ez naiz kapaz paisaiatz gozatzeko. Inazio ezagutu nueneko urdaileko tximeletak, gaurkoan sits

ustelak dirudite. Artega naukate pentsamendu ezkorrek. Nire begiradak karretera zaharrea iltzatuta eman du bidaia osoa.

Heldu gara!

Begi belztun neskatxa horaila dut aurrez aurre. Ni baino pare bat urte gazteagoa. Ziurgabetasunak malko bat jaurti du nire masailetik, ezjakintasunaren zigorpean ibili naiz nire laguna ikusi dudan arte. Gerra hasi baino ez da egin.

- Lasai Viv, setiatzen hauten arriskuetaatik begituko haut.

Martxoak 31, 1937

(7:00) Goiz itzartu naiz gaur, ospatu beharreko egun bat delako naiz eta gerran jarraitu. Gure Ostaixka txikiak urte bat beteko du gaur. Amak irailan utzi gintuenetik ez dut doluzko arropa kendu eta uste dut badela garaia. Abadiñora hurbilduko naiz intxaur bila, eguaztenoro bezala azokan fruitu lehor anitz dago. Intxaur-saltsa prestatuko dut gaur azkenburuko. Vivianne geratuko da etxean Inazio esna ez dadin, bitartean alaba eta biok Abadiñora joko dugu.

Pare bat hilabete daramagu mehatxu alarmak jasotzen Bizkaiko bonbardaketei dagokienez eta zertxobait larritzen nautela aitortu beharra daukat, hala ere Durangora ez zaigu erasorik heldu.

(7:45) Ordu-erdiko ibilaldia eta gero Bitorren fruitu postua ikusten dugu. Plazandreak agurtzen ditugu betiko lez:

Gurene: Ene, zenbat hasi haizen Ostaixka tiki! Katixa: Hartu eizu karamelu hau!

Lonora: Hotz hartuko don! Jarri einin arropea!

Bixenta: Aman begixen iguelak dittun, kuttun!

Eloisa: Aiten urek hartu dozuz zuk!

(8:00) Santa Anako kanpaiek alarma deika jo dutelako zurrumuruak hasi dira. Egunero jotzen dute, espero gaurkoan ere esamesak baino ez izatea.

(8:30) Bizarrak zutik jarri zaizkio Bitorri. Laranja bat lurrera erori da, baina ez da inor makurtu bere bila. Elizako kanpaiek etengabea jotzen



11.20

dute. Frutaren bila makurtzen naiz ni, baina tupustean zarata batek ikaratu egiten nau. Zerura begiratu eta Kurutziaga norabiderantz ikusi nituen... laranjak berriro errodatzen jarraitu du lurrean.

Santa Anako kanpaiak entzunda Inazio ohetik salto batez altxa da. Ni ikusi nau, baina kanpaiekin nire presentziak ez du harritu. Besotik heldu nau eta korrika irten gara kalera. Sena. Azken urtean senak gidatu izan gaitu, egunen baten dena galtzearen beldurraren sena. Hegazkinak entzun ditut eta negarrez korrika hasi naiz gordeleku baten bila, itota, nahigabetua. 'Hau gerra da', badakit, baina aldi berean ez dut jakin nahi. Kurutziaga kalean aurrera egiten dugu korrika, baina hegazkinek ez dute Inazio harritzen, bere familia baino ez du begiradarekin bilatzen, gixajoa.

Kalean aurrera egin ahala hegazkinek estaltzen gaituzte. Buelta ematea erabakitzen dugu, baina 34. zenbakidun etxe gainean zerbait erortzean lurrera botatzen gara berehalaxe.

Oihuak. Negarrak. Belarri bat entzungor nabaritzen dut. Nire buruak eztanda egin du. Ez dut hanken erantzunik jasotzen. Norbaitek besartean jaso nau, baina begiak itxi ditut ireki ezinean.

Beste etxe bat erori da... eta beste bat... Jesuiten San Jose eliza lehertu dutela entzun dut, baina marraska artean berriz begiak itxi ditut. Odoletan daukat belauna habea gainean jauzi zaigunetik.

Ez dakit non ireki ditudan begiak oraingoan, baina moja batek eskutik heltzen nauen bitartean Inaziogaitik galdetzen dut. Andra Maria elizan bidean zela erantzun dit, Agate eta Ostaixka izenak aipatu dituela ere esan dit. Santa Susana konbentu agustindarrean nagoela ondoriozta dezaket mojaz inguratuta nagoelako. Eztanda bakoitzak aienak ditu atzetik, herritar errugabeen aienak. Gogorra da gero, etorkizuna hain hurbil izatea.

(11:00) Italiako *Aviazione Legionari*ako hegazkinek Andra Maria eliza lehertu dute, aterpeko merkatua guztiz suntsitua geratu da.

(15:35) Santa Susanako konbentua hondatu du Soriatik zetorren *Savoia S-81* hegazkinetako bat. 11 moja hilda... eta ez da gorpu gehiagorik aurkitu.





INAZIO ATXABALKORTAZAR OBIAGA jauna

(Goian Bego)

Durangon hil zan, 1937ko martxoaren 31n, 29 urte ebazala

Bere alarguna, AGATE; alaba, OSTAIXKA; anai-arrebak,
koinatu-koinatak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako senideak.



VIVIANNE ERREMONDEGI SIMONENA andrea

(Goian Bego)

Behorlegin hil zan, 1982ko urriaren 9an, 67 urte ebazala

Bere senarra, GAUTIER; seme-alabak, ISABELLE,
JULES eta MADELEINE;

koinatu, ilobak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako senideak.

.....

Gerrak gauza asko eraman zituen arren, gauza asko ostondu zituen ere.

1992 inguruan

- Jatorra zen, bai, eta oso. Betiereko dolua merezi zuen, baina ez lukeen onartuko nire bizitzari baltz-kutsua ematea. Egunero oparitzen zidan irrifarren bat, eta amari be noski, kuttun. Azenarioak jaten ematen zuen egun osoa, kar kar kar kar.

- Neuk ere azenarioak jaten ditut, amona Agate!

- Eta hik ere oparitzen didan irrifar bat egunero Kattalin maittia. Nolako zura, halako ezpala.

.....



AGATE LARGATXA ITURRIKOETXEA andrea

(Inazio Atxabalkortazarren alarguna) (Goian Bego)

Durangon hil zan, 1998ko azaroaren 21ean, 84 urte ebazala

Bere alabak, OSTAIXKA; biloba, KATTALIN; anai-arrebak,
koinatu-koinatak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako senideak.



Ipuinak




Iñigo

Legorburu Arregi

Irabazlea 18 urtetik gorakoen artean

Azken afaria



11
-20

1983ko urtarrila

Azken afaria ospatzera goaz, aurrenekoz. Azken burukoak postrerako utzi baino lehen, gure buruei azkena ematera. Proportzio biblikoak hartu ditzakeen gertakizuna, kasu honetan, benetako miraria ez gertatzean datzana. Argi dakusat gure artean sortu den iluntasuna, su geldoan egosi den gure gainbehera baten (beheranzko) parabola bat besterik ez dela baina zailena eta liseritzen konplikatuena, itzaltzen noiz hasi ginen jakitea egiten zait.

Itzaltzen joan garelako, harremana sutara botatzen genuen bitartean, elkar sutzen ginen heinean. Suak bedeinkatu beza ba afari hau, madarikazio honek bedeinkatzen jarraitu dezan gure amaiera.

Gure maitasun hau, sortzez garbia izan den hau, Genesiaren gisara itzaltzen ari delako. Genesisia, sorrera bat baino, hasiera bat amaitzen hasi zeneko unea izan delako gizateriarentzat.

Larunbata gau honek, gutxi du jai egunetik, nire lasaitasuna atsedean hartzera bidali duelako. Dena ederki prestatu duzu, afari goiztiar bat, ongi kalkulatu eta denboraz pentsatua, garaiz amaitu dezagun. Garaiz, baina aldi berean jada berandu, berandu gabiltzalako lehen egunetik. Berandu gabiltzalako gure harremana egun eta hilabeteetan zenbatzen hasi ginenetik, unek ahaztuta.

Unetu baino, umetu eta unatu egin izan naiz zurekin. Oraindik ere, txiki eta indarge sentitzen naiz zure aurrean, parez pare gaudenean. Aurrean

izanagatik, sekula santan berdinetik berdiner a zurekin hitz egiteko gai izan ez naizelako, akaso.

Zure begiek, beti bezain gardenak izaten jarraitzen dute ordea. Idortasuna jariatzen du zure soak, ni geldi-geldirik lortzea mantentzen duen zure so-ak. Beti izan zara hitz gutxikoa eta zoritxarrez, zuk hitz egin izan duzunetan, beti esan egin izan duzu; ingurumariatari ibili gabe. Eta agian, urteetan murtzikatu egin nauzu zure magiaren bidez, dena kontrolpean edukitzea desio duen magia beltz horren bitartez.


Atzean utzi genuen garai ederrago baten data daraman ardoari trago bat eman diogu, eta gure harremana bezala, jada ozpinduta dago. Odol txarrekoa izan naiz beti baina ardo onenak bezala, gorputzaldi ederrekoa. Ederra dena, beti ez da polita suertatzen ordea eta kristoren gorputzik ez da gorputzu nigan. Zu ezagutu aurretiko nire liraintasuna atzean utzi, eta orain, ederra nago ba!

Trago txarra pasatzeko, komunera abiatu zara; isiltasuna bioi etengabe esan eta esan ari zaigun honetan. Guk soilik, hitz totalka moztan diogu isiltasunari bere erretolika. Gure komunean denbora dexente pasa duzu, gure harremanean ez bezala; guk komunean denbora gutxi pasa izan dugulako. Elkarrekin ez, bata besteari alboan egon garelako soilik. Baten eran, zure eran. Eta zuri jaten eman dizudalako, nire modura.

Maitasun betekada zein baraualdietan, beti ibili izan gara pipertuta, bizitzaren gatza eta piperra alde batera utzita. Elkarrenganako gosea, esne-mamitan zaintzen abilak izan gara denbora guzti honetan, eta maitasuna; gutizia bat soilik izan da, askoren eskura zeneukan *delicatessen* bat, niretzako eskuraezina.

Zure eskutik soilik maitemina zetorrelako. Zu, zure buruak eta zure egoak trinitate santua osatzen zenutelako.

Zuk, ongi inguratuta aurkitzen zarenean, jainko txiki baten jokamoldeak erabiltzen dituzulako. Eta alderantziz, inguratuta soilik aurkitzen zarenean, zure barruko deaburik gorrotagarrienak ateratzen dituzu etengabe; agian jaten zaituen gaizkia ukiezin horrek itxura fisikoa hartzen duelako. Dena den, zure ustezko jainkotasun hori oso lurterra gertatzen da eta gainera, gauza bat esango dizut, argi ikusten hasi zaitezten: zure kideek aldareetara



igo izan zaituzten bakoitzean, infernurako bidean jarri zaituzte. Eta ez zara inondik inora ere konturatzen.

Apostoluak deitzen diezu zure lankideei, ia ia menpekoak dituzun horiei. Ezer gutxi kontatzen didazu oraindik ere, zure lan misterioitsu horri buruz. Horregatik, nire aldetik behintzat, dena esanda dago.

Barre-argaren artean, zuk kontatu baino, zuri *gauzak* kontatu egin behar dizkizutela azaldu izan didazu behin baino gehiagotan. Hariari tiraka, kazetaria ote zinen galdetzen nizun hasera hartan, lerro-bururen bat emango zenidan esperantzan...

Baina azkenik, ezinbestean, lerro artean irakurtzen ikasi dut eta nahi gabe, zure lanbidea zein den asmatu eta pairatzeko aukera izan dut; nire nahigabeei atea irekiz.

Gailurrerako bidean zinela azaltzen zenidan uneoro, konplizitatea iradoki nahi zuen begi kliska batekin. *Gailurra* gora eta *gailurra* behera, noizbait ulertuko nizula errepikatzen zenidan. Eta zure lanean, soilik gizonezkoak jarduten zinetela aipatzen zenidan, zure lana egiteko *oso gizona* izan beharra dagoela berretsiz. Marilyn Loden amerikarrak bere lanean emakumeekin gertatzen dena ikusi ostean asmatu berri duen espresioak irria eragin dizu azken aldi honetan: *kristalezko sabaia*. Zure lanean, ez zegoela *kristalezko sabairik*, denontzat baldintzak berdinak zirela baina zure lana soilik gizonezkoek egiten zutela azpimarratuz.

Zure ordutegi eta egutegi malguk, zur eta lur uzten ninduten haserako urte haietan. Aste batzuetan, lantokira joan beharrik ez zenuela esaten zenidan, zure lankideek *informazioa kudeatu* behar zutela argudiatuta. Txanponaren ifrentzua gaueko ordu txikietako dei misterioitsu haiek suertatzen ziren ordea, hitz gutxiko elkarrizketa haiek.

Ametsak sakon egiten diren ordu horietan, besteen amesgaiztoetan sakontzeko tenorean abiatzen zinen zu.

Fedea zeneukala egiten zenuen hartan azpimarratzen zenidan aldiro, garrantzitsuegia zela niri hain modu xinplean azaltzeko; baina mundu hobego bat lortzeko borrokan ari zinela jakin nezan nahi zenuela. Bortxak eta indarkeriak tokirik izango ez zuen mundu baten aldeko borroka hartan, zure bortizkeria koldarra zen baina nire sinesmenak bide egiten zion zure ezkutuko biolentziari.

Mundua hobetuko zenuela esaten zenuen. Baina zein mundutaz ari zinen zehaztea ahaztu zitzaizun. Bi mundu ezberdinetakoak ginelako gu geu ere. Maitasun itsu hark, gu begiz jo gintuen arte. Cupidoren geziak, lehenik gozatu eta gero gazitu gintuen arte.

Mundu ezberdinetakoak ginen, bai. Zure mundua asfaltozkoa, grisa eta frankismoaren garaian Euskal Herrira etorritako etorkinen familiak osatzen zuten. Gaztelaniaz jarduten zineten jo eta ke, zuen inperioa gure lurretan hedatuz, beste mundurik ez zela ia ohartu ere egin gabe. Zure flamenko eta sevillana doinuak etengabe bozgoran abestuz, zure nortasuna sendotzen zenuelakoan.

Eta gero, nire mundua zegoen. Eta horren barruan, nire munduak. Baserrian jaio eta hirietako katakunbetan bizi ginen euskaldunon mundua. Nirea, eguneroko manifik, kontzertu erraldoiek eta biharamunik gabeko poteo amaigabeek osatzen zuten, oraindik bezperan bizi zen herri euskaldun baten irrikitan.

Zenbat sekretu gure artean, ezta? Beno, zu eta zure buruaren artean, batik batik. Nik neure irakasle lanarekin ederki asko kunplitzen nuen ikastetxetik ikastetxera, saltoka. Eta zu berriz, gure lanen arteko antzekotasuna iradokitzen zenidan etengabe.

- Gure lanak ez dira hain ezberdinak, maitea.

- Nik nire ogibidea aurrera eramateko lanak izaten ditut, bada! Zuk ere bai? Zertan jarduten zaren ez didazunez esaten...

- Beno, biok ere tratua bilatzen dugulakoan nago. Nik, neure bezeroekin eta zuk zeure ikasleekin.

- Tratua? Tratua ona edo txarra suertatu daiteke, dena den...

Gogoan daukat oraindik, nola ilundu zitzaizun kopeta une hartan. Zure bisaian agertu ziren zimurrek, olatu kolpe bortitez bete zuten zure kopeta. Zauri bat ukitu banizu bezala izan zen, zornea zerion zauri bat zapaldu banu bezala.

Baina zauri batzuk ixteko, zorneak bere bidea egiten jarrai dezan batzuetan beharrezkoa gertatzen da.

Zuk, zeurean jarraitzen zenuen artean.

- Bakoitzak, dagokion saria jasotzen du: ikasle eta bezero onek, gure onena merezi duten bitartean; gaizki portatzen direnek gure alderik ilunena atera dezagun baimentzen digute. Ez al duzu uste?

Lur labainkorretan barneratzen ari nintzenaren jakitun, tentuz mintzatu natzaizun.

- Beno, ikasleak dira eta euren betebeharra, uneoro irakasleak neurtzea izaten da, haiekiko abantaila bat ateratzeko. Baina nik, irakasten eta hezten jarraitu beharra daukat unerik kritikoenen ere, pertsona ona izaten ere ikasi egiten delako.

- Ba nik halakotan, ikasgaia eman ordez, lezioa ematearen aldekoagoa naiz.

- Nola, bada? Zuk lezioa eman? Ez al du beti bezeroak agintzen negoziotan?

- Gureak, negoziak baino; negoziazioak izaten dira. Eta nire lanbide honetan, zartagiaren kirtena eskutik uneoro eramatea ezinbestekoa da...

Ezer esan gabe, gehiegi esaten ari zinenaren irudipenaz isildu zinen. Zure bat bateko mututasunaren ostean, nire irudimenaren hitz jarioak aurrera jarraitu zuen, ordea.

Bakardadea alargun uzteko asmoz zurekin ezkondu nintzenean, handik gutxira ohartu nintzen zergatik bihurtu nintzen zure emazte: handik aurrera, nire buruari zein sufrikario mota opa nion frogatzeko modu bat zen hura. Bizitzari uneoro zenbateraino egingo nion uko aukeratzeko motiboa ematen zidan horrek, zurekin egoteko.

Eta bizitza berari uko eginez bizitzeari ekin nion handik gutxira.

Eta iragana gaurkotu den honetan, dena aldatu da.

Zure gardentasun horretan, igartzen dizut nire bihotza xerretan mozteko ahaleginak sortzen dizun bihotzerrea. Horregatik joan zara komunera beste bi aldiz segidan, esan nahi didazuna atzeratu nahian.

Ez zaitetz erlaxatu, arren, lasai egoten jarraitu nahi baduzu. Zure aurpegiak ederki erakusten du barrutik ez zaudela ongi. Agian, zure erraien metafora liteke hori: tripetatik aritu zara baina erraietatik ez, gure



harremanaren azalera axalekoa bihurtu arte. Izan ere, zure kristalezko izaera garden eta hauskor hori, oso poliedrikoa suertatu da: mespretxu askoren isla bakarra izan da zure bisaia.

Orain, niretzat iraganak du lehentasuna. Lehen-tasuna delako iragana, aspaldi bizi izandakoen berrinterpretazio bat. Gure harremana batzuentzat eredu zen, eredugarritik gutxi zeukan arren. Lehen aldiak, beti ez direlako berriak izaten, halaber.

Elkarrekin egon garen hilabete hauetan, nik eman dizut jaten zuk fagozitatzen ninduzun bitartean. Eta azken hilabete hauetan, dena garden ikusten hasi naiz. Prisma ezberdinetatik begiratzeko gai izan naiz ispiluak bidaltzen zidan islari eta kristala, mila zatitan txiki-txiki egitea pentsatu dut.


Eta hala, zuk ni txikitu baino lehen, hauts bihurtuko zaitudala erabaki dut, zure azken asteetako komunerako ibilerak ugaritu diren bitartean. Zurbil zaude, sekula baino txuriago eta komuneko zuloa jada odolez betetzen hasia izango duzu. Zarenarekin, gertatzen ari zaizuna inori ez diozula kontatu seguru nago. Azken aldian, kristalak txiki-txiki egin eta otordu guztietan sartu dizkizut, hesteak ebakiko dizkizudalakoan.

Horrela bada, nik zurekiko zilbor-hestea moztuko dut, berriro ere jaiotzeko. Edo azken afaria izanda, berpizteko.

Zerraldo erori zara komuneko bueltatik, galtzak odolez beteta dituzula. Zure mespretxuen zerrenda eramangarria litzaidake etxeko bakardade isolatu honetan baina beste mutil hura zure egoitzara eraman zenuenetik, gauzak goitik behera aldatu dira. Zure aldetik *amore*-rik ez jasota, nik amore eman, gure harremana bukatutzat eman eta beste amorante bat topatu dudalako.

Baina mutil honek zure eskuetan amaitu du, zure torturazaile esku zikinetan. Ogibidetik gutxi duen zure *lan* malapartatu horretan. Bera bost egunez kolpatu eta jo duzun arren, benetan zauritu duzuna ni izan naizelako. Bere aiene eta garrasiak ongi disimulatu dituzu Aieten dagoen *La Cumbre*-ko zure egoitza horretan, flamenkoa eta sevillanak jariatzen dituzten bozgorailuak baliatuz. Inguruan dauden bizilagunek, *beste festa bat izango da soilik* pentsatzen zuten bitartean.

La Cumbre eraikina, horra zure lanaren gailurra. Hipokrisia eta auzolotsaren gailurra.



IL
-20

Etxeko izkinak, txokoak eta babesgune izateari utzi diote eta jada, ertzak dira. Erlijio bilakatu zaizun justizia faltsu baten Judas Iskarioterik nire ondoan ez dudalako onartuko. Egunsentian, oilarrak hiru aldiz kantatu aurretik, ni oilartu natzaizu; ikusten duzun moduan.

Orain, testamentu zaharra notarioaren aurrean berridaztea gelditzen zait eta ur sakonetan murgilduko naizen arren, haien gainean ibiltzen ikasi beharko dut.

Amen, zu hilotz eta ni kemen.

Olerkiak




Eider

Miguel Sanchez


Irabazlea 11 -12 urte bitartekoen sailean

Landako Eskola

T xantxangorria



TL
-20



Goizero-goizero,
egunero-egunero,
txantxangorri bat dator
bero-bero.

Txantxangorriak poza
dakarkio nire bihotzari,
eta argia nire logelari.

Arratsaldez joaten da
baina, goizez itzultzen da,
poza ekartzera.

Txantxangorri maite,
nola zaude?
Zergatik zatoz nire alde?

Galdetzen diot nik,
eta erantzuten dit:

Zuk behar duzuna
lagun on bat da:
goizero goizero datorrena
eta poza dakarrena.



Olerkiak




Danel

Barrutia Narbaiza

Irabazlea 13 - 14 urte bitartekoen artean

San Antonio Ikastetxea

Barruan geratu behar



Ez dakit noiz arte iraungo duen,
baina nazkatuta nago jada

Egunero gauza bera,
jaiki eta kartzela bihurtu den
etxean geratu behar.

Lagunekin etxetik berba egin behar,
kirola etxean egin behar,
eskolak etxean hartu behar...

Lagunak, kirola, kalea...
Dena alde batera utzita,
barruan geratu behar.

Mundua handia dela?
Dena urrun dagoela?
Gezurra dela argi geratu da.

Abenduan ez genion
kasurik egiten, baina orain
bertan daukagu.
Eta besteak bezala...
Gu ere barruan geratu behar.

Badaukat gogoia lagunak ikusteko.
Nork esango zidan,
baina badaukat gogoia
eskolara bueltatzeko,
baina bihar ere,
barruan geratu behar!



Olerkiak




Nerea

Etxaburu Mintegi

Irabazlea 15 - 16 urte bitartekoen artean

San Antonio Ikastetxea

Izar berri bat



IL
-20

Orain zeruan hain bakarrik zaudela
dena ilun, isiltasunez beterik
hitz batzuk oparitu nahi dizkizut
bakarrik ez zaudela sentitzeko
eta nire arima zeurekin egoteko

Oraindik gogoratzen zaitut
momentu eta toki guztietan
bakarrik nagoenean
ezin dut beste ezer pentsatu
beti zaude nire buruan
pentsamendu guztietan zaudelako

Ondo gogoratzen ditut zure eskuak
hain leunak, hain goxoak
zure laztanak bezala
zure begi urdinak
hain handiak, hain politak
baina gehien gogoratzen dudana
zure irribarrea da
hain txuria elurra bezalakoa

Zure musuak eta zure besarkadak
beti faltan botatzen ditut
momentu haietan
beste leku batean nengoela
sentitzen nuelako
Badakit ahaztu behar zaitudala
ez dakit nola egin dezakedan
baina betirako geldituko naiz
gure momentu onenekin
eta gure sentimenduekin

Zure izena entzuten dudanean
triste eta burumakur geratzen naiz
baina zerura begiratzerakoan
badakit izar bat
hain distiratsua eta hain polita
ni zaintzen nauela.





Olerkiak



Amaiur

Zuazua Abendibar

Irabazlea 17 - 18 urte bitartekoen artean
Fray Juan de Zumarraga institutua

Zutaz oroitzen naiz



Gaur, atzo bezala
zutaz oroitzen naiz.

Nire izenez deitzeak,
ni begiratzekoan zure burutik zer pasatzen den pentsatzeak,
urduritzen nauela jakinez, begia kliskatzeak,
eztabaida bat izan ostean zoratzen zaitudala entzuteak,
gorritu egiten nau.

Zure begiek, begirada soil batean azala zeharkatzeak,
zeharka begiratu eta zu ere niri begira ari zarela ohartzeak,
nire ezpainei begira ari zarela ikusteak,
bero-bero zaudenean duzun begiradak,
praketako kremlera askatzen dizudan bitartean begietara begiratzeak,
bion arteko begirada mantentzeak,
harrapatu egiten nau.

Musuarteko zure irriak,
zuzenean elkarri begira gaudenean irribarreari eusteak,
lotsatu egiten nau.

Nire usaina gustuko duzula belarrira xuxurlatzeak,
zure gorputzak nire usaina duela jakiteak,
nire gorputzean zure usaina izateak,
zure oheak nire usaina duela esateak,
piztu egiten nau.

Gaueko ordu txikietako zure arnasak,
zure arnasak nire ezpainak besarkatzen dituela sentitzeak,
eskua hankartera hurbiltzen dizudanean askatzen duzun arnas ozenak,
kitzikatu egiten nau.

Oilo-ipurdia jarriz, belarriko hozkadak,
zure onetik ateratzen zaitudanean, ezpainean hozka egiten duzula ikusteak,
nire gorputzeko edozein ataletan zure haginkada sentitzeak,
urduritu egiten nau.

Gerritik ebatu eta zugana hurbiltzeak,
lotan nire gorputza askatzen ez duzula antzemateak,
lasaitu egiten nau.
Ilearen azpitik burua ikutzean nola jartzen zaren nabaritzeak,
kilimak eginez zure ipurditik bururaino doan bidea sortzeak,
zu berotzeak,
berotu egiten nau.

Amodioa egiteko gogoz, egunsentiko zure laztanak,
belarrira ihintziri egiteak,
maitasuna egitean “maitte zaittut” oihukatzeak,
erotu egiten nau.

Ni maitatzeko duzun erak,
nik zu maitatzeak,
beldurtu egiten nau.

Olerki hau idazten hasterakoan zugar pentsatzeak,
zoratu egiten nau.
Eta gaur, atzo bezala
zutaz oroitzen naiz.





Olerkiak




Iñigo

Legorburu Arregi

Irabazlea 18 urtetik gorakoen artean

Lehentasunez



Iragana aurretik datorkigu jarraika
kortse zaharretan tatuaturik,
zure larruazala, izan ginenaz mintzo da
argitasun kriptiko batez.

Egunguentia esnatzen zenuen
eta nire zentzumenak hilez, berpizten
beste bizitza bat bizi genuelarik
periferian, mugalari bihurtzen gintuena.

Isiltasunak, hitzak baino gehiago daki
horregatik, egunguentiak isilak dira
eta naturak denboraren sekretuak dakizki
isiltasuna, barnerakoia denean
gure maitasun telurikoak
barruranzko leihoetatik irrintzi egiten duelako.

Gertatu zitzaiguna ez nuen ulertu
bihotzak menia bat eskatu zidalako
eta bitartean, gertakariak atzerantz egin zuten
bateratzen gintuen maitasun dislexikoan.

Zurekin nengoenean, ez zinen
eta zinenean, ez zintudan ondoan
eta zuk, ni maitatzen ninduzun gauero
nire argitasunak iluntzen zintuela
baina nik, soilik; bion arteko gaua desio nuen.

Gezur batean bizitzearekin amestu zenuen
gezur betean, biok geundelarik
baina gure bizitzetako gezurrezko hegia aldapatsuan
egunek, ez zuten lekurik izaten asmatzen
asmatzea, lekutzea zelako.

Neu eta ni ginen zurekiko
baina zuk, new nahi ninduzun
etorkizunez betetako indusketek
gu zokoratu gintzaten.


Laztan baten gramatikan ulertzen genekienok
telematikoki hurbiltzen ginen
ginenaren puntu suspentsiboetan
hitz batek betetzen zuelarik hutsunea.
Eta gure besoek, parentesi bat ireki zuten
iraganeko hitzak azaltzeko.
Buruko txoriak zerura erori ziren
eta mundu berri bat ludiratu zen
ludikoa zena baina ez jolastia
hegoak, lurrean bizitzen jarraitzeko zituena.

Eta zu zinen haien samalda hark
beldurtu ninduen, balentria batera bideratuz
ausardiz jokatzera ekidinez,
eta ausardiarekin aritzera hobetsiz.

Denboraz hitz egin genuen baina ez garaiz,
gelako erlojuan kabitzen zen hartaz
eta hala, ihes egiten zigunak.



馬



Hegaldia hasi zuen txoria zinen,
nire alboan jarraitzen zenuen
joaten ari zinen bitartean
baina hegaldia, zure hegaldia
nire begiei itsatsirik gelditu zen.

Lehentasuna bihurtu nintzen zuretzat
zu guzti haientzat
baina ez garrantzitsu.

Gar-ahantzi ahul batez
urtu zen, txinpartaz txinparta
zuk sortu zenuen mundua.

Bertso paperak




Iñigo

Legorburu Arregi

Irabazlea 18 urtetik gorakoen artean

Etkez etxe



Doinua: Gai horrek badu mamia (X. Amuriza)

1

*Banatzai*le pegatina
hartuta paparrean
lan-txandarako prestatu
naiz ilunabarrean.
Normaltasun ez-normal hau
denetik indarrean
erosketak banatzeko
txit modu azkarrean
auzokoak biltzen gara
lantalde bakarrean
mundua saretu dadin
xaretu beharrean. (BIS)

2

Alarma egoeratik
kalera irtetean
milaka kaleratu ta
beste batzuk ERTEan.
Agortutako aurrezki
edo zorren menpean
elikagaien bankuan
jende asko eskean...
Konfinamenduko amets
guztiak etetean
etikoki ez al gara
hustu bete-beteen? (BIS)

3

Etengabeki mimatuz
eta txintxo itxuran
amona zaintzen dabilta
Izarne eta Xuban
irribarre konplize bat
pizten delarik gudan...
Lehenago hasi bagina
zaintzaren abenturan
biktimarik ez legoke
birusentzat, jomugan
elkarbizitzaz bete den
gizarte honen gudan. (BIS)

5


Umeen bizitza ez du
egoerak errezten
baina irudimena da
seme-alaben ezten!
Maisuen ordezt helduok
jarri gaituzte hezten
baina haurren mundu hori
ez al dugu saihesten?
ikasgaiak piltzean,
ipuinak salbuespen...
ez dakit gure hezkuntzaz
harro egon gintezken. (BIS)

4

Bere bikotearekin
bizi den Aminetou
ate albotik zain daukat
burumakur ta estu.
Bisaian ageri ditu
bi begi-ondo belztu
hark bikotearengandik
nahiko luke babestu...
Aterpe bat duten arren
famiariaren esku
etxe guztiak ez dira
sarritan bizileku. (BIS)

6

Atano atondu dute
aterpetxe moduan
etxegabeak lo daude
frontoiko lurzoruan.
Hotza udaberritu da
mundu honen neguan
baina han aurkitzen dira
lasai ta soseguan...
Pertsonen goxotasuna
ez al da gailendu, han?
bakartuta daude baina
ez isolamenduan! (BIS)



7-22

7

Baserri ondotik Graxik
eskuz agurtuz, *aupa!*
Wi-fi ta gasik ez dunez,
arduratuta nauka.
Baina hark alaitasunez
bihotza taupa-taupa
belardiak erakutsiz
diosta *hau da mauka...*
Presarik ez daukagunon
paradisu da hau-ta!
Guk dena dugula uste
ta hark guztia dauka. (BIS)

8

Normaltasuna hitz hori
ez al da topikoa?
Mundu indibidualista
ez baitut begikoa...
Non dago gizartearen
lurzoru etikoa?
Berbera izanagatik
gaur ez naiz betikoa,
landu nahi dut begirada
zorrotz ta kritikoa
normaltasuna bihurtu
dadin ez ohikoa. (BIS)

